

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Hasierako onespena ematea Araiaiko udal aterpetxearen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen udal araudiari

Udalbatzak, 2021eko ekainaren 3ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Araiaiko udal aterpetxearen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen udal araudiari.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hogeita hamar egun baliodun jarriko da jendaurrean espedientea, udal idazkaritzan, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazio, ohar edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, hasieran onetsitako erabakia behin betiko onetsizat emango da.

Araia, 2021eko ekainaren 7a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ